



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI OROKORRAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA SOZIJETATEAN SISTEMEN ANALISTAREN LANPOSTU BAT (PROFIL GENERIKOA) BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

LEHENENGO OINARRIA.- ARAU OROKORRAK:

1.1. Oinarri hauen xedea da ondoko hau betetzeko hautaketa prozesuaren arauak ezartzea:

- Sistemen analistaren lanpostu bat (profil generikoa) (2024003).

1.2. Aplikagarria izango da deialdi honetan oro har xedatutakoa. Oinarri hauek arautuko dituzte hautaketa sistema eta puntuazioak.

1.3. Deialdiaren xede den plazak enpresaren hitzarmenaren arabeko ordainsaria izango du (5. maila: 45.282,73 euro; bigarren urtetik aurrera 6. mailara iritsi ahal izango da: 50.865,53 euro gordin urtean). Horrek berak arautuko ditu gainerako lan baldintzak ere.

1.4. Lanpostuak AKSaren Gasteizko (Araba) bulegoetan beteko dira, eta interesdunak AKSAn indarrean dagoen telelaneko akordioari heldu ahal izango dio.

1.5. Lanpostuak betetzeko berariazko araudia haien oinarri espezifikoeetan jasoko da.

1.6. Kontratazioak kontratu mugagabearen modalitatean egingo dira, eta dagokion probaldia izango dute.

1.7. Kasuan kasuko lan poltsa osatu eta lehenengo bi urteetan, deialdi honen xede den lanpostuaren berdina diren beste batzuk behin betiko betetzeko premia gehiago sortzen badira, AKSak kontratazio mugagabeetarako deitu ahal izango ditu hautaketa prozesu osoa amaitu duten pertsonak, hau da, hautaketa prozesuaren 4. fasea egin duten eta azken horretan GAI izan diren pertsonak, betiere puntuazio hurrenkeraren arabera.

Lanpostuak era mugagabean betetzeko premia berri horien artean, honako arrazoi hauek daude: erretiroa, egiturazko plantilla areagotzea, behin betiko borondatezko baja eta borondatezko eszedentziagatik lanpostua gehiago ez gordetzea.

1.8. Deialdi hau enplegu webguneetan argitaratuko da, eta oinarriak (orokorrek eta espezifikoeak) eskuragarri daude AKSaren webgunean (www.ccasa.es) eta enpresa laguntzailearen webgunean (www.qualisconsultores.es).

BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte (baldintzak baztertzaileak dira betiere):

- **A) Eskaera:** Eskatera, **I. eranskina** eta **II. eranskina** betetzea (dokumentu horietan jasotzen diren eremu guztiak).
- **B) Nazionalitatea:** Besteren konturako lanpostuak langile lan kontratudun gisa eskuratzeko indarrean den legediak ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzea. Atzerritarrei dagokienez, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak eskatzen dituen baimenak eduki behar dituzte. Lege horrek atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen du.
- **C) Adina:** Hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gaintitzea.
- **D) Titulazioa:** Oinarri espezifikoaren hirugarren oinarrian adierazitako titulazioetako bat izatea edo hura jaso ahal izateko eskubideak ordainduta izatea.
- **E) Gaitasun funtzionala:** Ez izatea dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen osasun arazorik, hargatik eragotzi gabe Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarritakoa bete dadila.
- **F) Gaikuntza:** Ez egotea epai bidez edo diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetako zerbitzuetako edo sektore publikoko enpresetako edozeinetatik bereizita edo aldi batez lanpostutik kenduta, eta ez egotea ezgaiturik eginkizun publikoak betetzeko.

Aurretik adierazi diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki behar dira betetik, eta lan kontratua egiten den unera arte betetzen jarraitu, salbu eta E apartatuan aipatzen dena, zeina AKSAK erabakitako mediku zerbitzuak ziurtatu beharko baitu kontratazio proposamena egin aurre-aurretik.

Pertsona desgaituak gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira hautaprobetan, baldin eta haien mugak iragarritako lanpostuari dagozkion eginkizunak edo egitekoak normaltasunez betetzearekin bateraezinak ez badira. Hautaprobetan, denbora eta baliabideak ahal bezainbeste egokituko dira, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute eskaeran.

Ariketak edo probak deialdi bakarreko sistemaren arabera eginez gero, edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste ekintza batzuk izanez gero, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea, behar bezala egiaztatuta, arrazoi izan daitezke ekitaldia egiteko denboraren eta/edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatzeko.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Aldaketa eskaerei erantzuteak berekin ekarriko ditu hautagai guztien lehia berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa neurriak.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek honako agiri hauek bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, deialdi bakoitzean zehazten den helbidera:

- **I. eranskina.**
- **II. eranskina.**
- **NANaren** edo balio bereko nortasun agiri baten **irudi eskaneatua.**
- **Curriculum vitae.**
- Gizarte Segurantzak emandako **lan bizitzaren txosten eguneratua.**
- **Ezagutzen zinpeko adierazpena.**
- **Curriculum memoria.**
- Oinarri espezifikoetan **eskatutako titulazioaren kopia.**
- Eskatutako ezagutzak edo baloratzekoak direnak egiaztatzeko **ziurtagirien edo diplomen kopiak.**
- Hizkuntza **titulazioen kopiak.**
- **Izangaiek baldintzak betetzen dituela eta alegatutako merezimenduak egiazkoak direla frogatzen duten agiri guztiak.**

Arabako Kalkuluguneak eskubidea du egiaztatzeko emandako dokumentazioa/informazioa egiazkoa dela, eta hautaketa prozesutik kanpo utzi ditzake automatikoki egiazkoa ez den informazioa eman dutenak.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 7an amaituko da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Qualis Consultores de Talento SL enpresa laguntzaileak erantzuna bidaliko du hartu izanaren agiri gisa, posta elektronikoz, eskaera bidali ondoko 48 ordu balioduneko epean, eta izangai bakoitzari eskaera kode desberdin bat helaraziko dio.

Izangaien nortasuna isilpean edukitzeko erabiliko da kode hori hautaketa prozesuan egiten diren argitalpenetan.

Mezu elektronikoa bat bidaliko da, informazio gisa, izangaiak emandako helbide elektronikora, jakinarazteko prozesuan onartu egin dituztela edo, hala badagokio, zergatik baztertu dituzten. Halaber, izena eman duten izangaietako bakoitzari identifikazio kode bakar bat emango zaio, faseetako bakoitzeko emaitzetara sarbidea izan dezan.

POSTA ELEKTRONIKORA EGINDAKO JAKINARAZPENEI BURUZKO OHARRA:

Hautaketa prozesuaren edozein fasetan posta elektronikoa bidez bidaltzen diren jakinarazpenen xedea informazioa ematea da eta ez dira, inolaz ere, lotesleak izango.

LAUGARREN OINARRIA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA:

Oro har, bitarteko hauen bidez jakinaraziko dira deialdiaren eta hautaketa prozesuaren inguruko iragarkiak, probetarako deialdiak, emaitzen argitalpenak eta abar:

- Webgunea: www.ccasa.eus
- www.qualisconsultores.es webgunea

Interesdun guztien eskura jartzen da honako helbide elektronikoa hau, argitaratutako oinarriak direla eta kontsultak edo argibide eskaerak bidaltzeko eta hautaketa prozesu osoan zehar alegazioak egiteko:

2024003@qualisconsultores.es

Fase bakoitza amaitutakoan, Qualis Consultores de Talento SL enpresa laguntzaileak lortu diren balorazioen zerrenda egingo du, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta alegazioak aurkezteko hiru egun balioduneko epea ezarriko du. Era berean, ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratuko dira, eta kanpoan geratuko dira gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten izangaiak. Behin betiko emaitzen argitalpena izango da epaimahaiak behin-behinekoei egin zaizkien alegazioei emandako erantzuna.

BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN HAUTAKETA:



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Hautaketa probak amaitutakoan, hautaketa epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta guztizko puntuaziorik handiena lortu duten izangaien alde.

Berdinketarik badago, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren profil profesionaletan, salbu eta beste hautagaiak sexuagatiko bazterkeriakoak ez diren arrazoiak badituzte neurri hori ez aplikatzeko; esaterako, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboetakoren batekoak izatea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, berdinketa hausteko ezarritako lehentasun hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

1. 4. fasean lortutako puntuazioa
2. 2. fasean lortutako puntuazioa
3. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onesten duen urteko ebazpenaren arabera (ordena ezartzeko unean indarrean dagoena), zeinaren bidez argitara ematen baita kasuan kasuko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa prozesuan eta ikasturte horretan iragarri daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

Hautaketa prozesuaren emaitza interesdunei jakinaraziko zaie, eta hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeko oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko ziurtagiriak:

Eskatzen diren eta curriculumean adierazi diren ikasketak egin izana egiaztatzen duten tituluen eta ziurtagirien edo diplomen kopia konpultsatua.

Proposatutako hautagaiak ez badute aurkezten galdegiten zaien dokumentazioa, AKSAk gaitzat jotako hurrengo hautagaiak (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango ditu.

Lanpostu honen probaldia sei hilabetekoa izango da, eta epaimahaiak probaldi horretarako balioespen batzordea izendatu beharko du; hark egin beharko du laneratze prozesuaren jarraipena, eta itxi egin beharko du egokia izan bada; bestela, dagokion justifikazio txostena idatzi beharko du.

Sei hilabeteko probaldian izangaia eszedentzian, baimenekin, bajaran edo antzeko egoeraren batean egon bada, probaldia benetako lanean sei hilabete bete arte luzatuko da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Proposatutako hautagaiek ez badute gainditzen aipatutako sei hilabeteko probaldia, AKSAk gaitzat jotako hurrengo hautagaiak (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango ditu.

AKSAk lan poltsa bat sortuko du aldi baterako kontratazioak egiteko. Lan poltsa horretan, 2. fasea gainditu duten pertsona guztiak sartuko dira, ondoko puntuazio hurrenkera honetan:

- Lehenik eta behin, hautaketa prozesuaren azken puntuazioaren arabera (4. fasea amaitu ondorengoa).
- Bigarrenik, 2. faseko puntuazio hurrenkeraren arabera.

Lan poltsetako berdinketa ordena ondoko irizpide hauek zehaztuko dute, hurrenez hurren:

1. Lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren profil profesionaletan, salbu eta beste hautagaiek sexuagatiko bazterkeriakoak ez diren arrazoiak badituzte neurri hori ez aplikatzeko; esaterako, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboetakoren batekoak izatea.
2. 4. fasean lortutako puntuazioa
3. 2. fasean lortutako puntuazioa
4. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onesten duen urteko ebazpenaren arabera (ordena ezartzeko unean indarrean dagoena), zeinaren bidez argitara ematen baita kasuan kasuko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa prozesuan eta ikasturte horretan iragarri daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

Hautaketa prozesu honen ondoriozko lan poltsa sortzean, orain arte indarrean zegoen lan poltsa ezabatuko da: BT-2022007: Sistemen analista

Hala osatutako lan poltsak nola hura kudeatzeko oinarriak AKSAren web orrian emango dira argitara, hautaketa prozesua amaitutakoan.

SEIGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA EPAIMAHAIA:



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

● **6.1** Hautaketa epaimahai bat eratuko da, eta epaimahai horren izendapenean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten **emakumeen eta gizonen presentzia orekatua** izatea bermatuko da, eta inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak errespetatuko dira. ¹

● **6.2** Ordenamendu juridikoaren arabera, hautaketa epaimahaiak ebatziko ditu oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta fase bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako jarraitu beharreko irizpideak ezarriz. Horrez gain, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu, eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko.

● Aipatutako epaimahaiko kideren batek ezin badu azaldu, sozietatearen zuzendaritzak izendatuko du haren ordezkoa (beharrezkotzat jotzen badu). Epaimahaia gutxienez hiru kidek osatuko dute beti.

● **6.3.** Hautaketa epaimahaiak erabaki dezake bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuek parte hartzea, hala egitea egokia deritzon ariketen probetarako.

● **6.4.** Epaimahaiko kideek ezin dute hautaketa prozesuan parte hartu (eta hala jakinarazi behar diote deialdia iragarri duen agintaritzari). Izangaiek errekusatzeko eskubidea baliatu ahalko dute, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23 eta 24. artikuluetan arautzen dituen inguruabarrak gertatzen badira.

● **6.5.** Hautaketa epaimahaiko kide guztiek izango dute ahotsa eta botoa. Aipatutako epaimahaiaren erabaki guztiak bertaratutako kide guztien botoaren gehiengoarekin onetsiko dira, eta, boto kopuruan berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du bozketa.

● **6.6.** Hautaketa epaimahaiko kideen izen zerrenda behin betiko onartu eta baztertu diren izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA:

Artikulu honen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da, baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkaritza badute. Gainerakoetan, bi sexuak ordezkaturik badaude.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, langileak hautatzeko prozesu honetan parte hartzen dutenei jakinarazten diegu prozesuan parte hartzearen ondorioz edozein xedetarako ematen dituzten datu pertsonalak Arabako Kalkulugunea SAK (AKSA) eta Qualis Consultores de Talento SLk honela erabiliko dituztela:

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AKSA-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	AKSAko Administrazio eta Giza Baliabide Saileko arduraduna
Xedea	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu AKSAk: <ul style="list-style-type: none">Hautaketa prozesua gauzatzeko eta langilearen eta AKSAren arteko lan harremana kudeatzeko.AKSAk parte hartzaileekin eta izangaiekin osatzen dituen lan poltsak kudeatzeko.
Legitimazioa	Izenpetzen duen pertsonaren baimena
Hartzaileak	Ez dira lagako
Eskubideak	Datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzea, eta informazio gehigarriaren dokumentuan jasotzen diren gainerako eskubideak.
Informazio gehigarria	Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu honako webgune honetan: www.ccasa.eus , Lege informazioa -> Datu pertsonalak atalean.

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	QUALIS CONSULTORES SL
Xedea	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu Qualis Consultores de Talento SLk: <ul style="list-style-type: none">Langileak hautatzeko prozesu honetan eta etorkizunekoetan parte hartzeko. Nortasun profilak eta lan profilak egiteko. Emandako erreferentziak egiaztatzeko.
Legitimazioa	Izangaiaren baimena, curriculum vitae bidaltzean.
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuetan enpresaren zerbitzuetan interesa duten bezeroak.
Datuak gordetzea	Langileak hautatzeko prozesuak iraun bitartean, eta hura amaituta, urtebetez, beste hautaketa prozesu batzuetarako.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Eskubideak

Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko ere, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilera zehatza eta baliatu nahi duzun eskubidea adieraziz. Zure datuen erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazioa aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean (www.aepd.es)

